Otsaila 2025

# MEREZIMENDUEN EGIAZTAGIRIAK AURKEZTEA

**Epea**: 2025eko martxoaren 7tik apirilaren 3ra arte, biak barne.

Jarraitu beharreko pausuak:

1. **ESKABIDEA** bete. Izena emateko tasa ordaindu beharko duzu epe berean.

2. Aurkeztu online deialdiaren I edo II. eranskinean, kasuaren arabera, aurreikusitako **MEREZIMENDUEN** egiaztagiriak (deialdiaren 3.3.1 oinarrian aurreikusitako kasuetan soilik).

**Oharra**: merezimenduen egiaztagiriak eskabidea amaitu eta erregistratu ondoren soilik aurkeztu ahal izango dira.

## MEREZIMENDUAK

**SOILIK alegatu eta egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar duzu** ofizioz zenbatzen ez diren merezimenduenak edo, ofizioz zenbatzeko modukoak izan arren, Hezkuntza Saileko Langileen Erregistroan jasota ez daudenak.

**Non kontsultatu ditzaket dauzkadan merezimenduak EAEko Hezkuntza Saileko Langileen Erregsitroan jasota dauden?**

1.- Sartu https://hezigunea.euskadi.eus/

2.- Identifika zaitez «Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» bidez edo Giltza-ren bidez

3.- Kontsulta ezazu






**Merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu behar baditut, nola egin behar dut?**

1.- Sartu:

https://hezigunea.euskadi.eus/

edo bestela,

https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-lnagileak/ – «EPE2025. Bigarren Hezkuntza» – «Merezimenduak entregatzea»

2.- Identifika zaitez «Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» bidez edo Giltza-ren bidez

3.- Klikatu "Izapideak langileen sailarekin" – "EPE2025. Enseñanza Secundaria".

4.- Klikatu "Merezimenduak entregatzea"

Merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzu, «**Merezimenduak alegatzeko eta aurkezteko orria. EPE2025**» frogagiriarekin batera; azken hau aplikazioan bertan lortuko duzu.

Dokumentazioa entregatuko da pdf formatuan eta entrega hori egiteko aurreikusitako aplikazio informatikoan zehazten diren jarraibideen arabera. GOGORATU klikatu behar duzula **"Amaitu dokumentazioa entregatzea eta erregistratzea", jasota gera dadin.**